



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko azaroaren 10ean buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako udaletxean, bi mila eta hogeiko urriaren hamahiruan, Mikel Arregi Urrutia Alkate jauna mahaiburu delarik, Ruben Alberdi Uranga, Nerea Odriozola Larrañaga eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

1.- INSTANTZIAK.

1.1) A.G.A. S.L.U.k, San Isidro kalea 1eko Jabekideen izenean, eraikin horretako hainbat konponketa egiteko udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.2) A.A.U.k, Zestoako Gaztetxean itukinak daudela dio.

Konponketa brigadako lanen plangintzan sartuko da, baina beharrezkoa da giltzaren kopia bat udalean uztea.

1.3) J.L.A.A.k, Zubimusu kalea 18 behean duen lokalean, ibai aldera, bi leiho ateratzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.4) L.A.k, Bidezarra kalea astean behin garbitzea eta bertan dagoen lorontzia kentzea eskatzen du. Iada astero garbitzen denez, gunehori nola antola daitekeen aztertuko du Udalak.

1.5) U.U.A.k, espediente administratibo bati buruzko informazioa eskatzen du.

Udal honetako espediente administratiboa aztertu eta informazioa igorriko da.

1.6) I.I.k, I.O. S.L.ren izenean, Sansinenea industrialdean S.E. S.L.rentzat egindako pabiloiaren obra amaierako dokumentazioa aurkezten du.

Ikuskaritza egin behar denez, hurrengo batzorderako utziko da.

1.7) A.D. S.L.k, 2020-2021 ikasturtean G-2701 ibilbideari dagokion eskola garraio zerbitzua egin ahal izateko baimena eskatzen du. Eskatutako baimena ematea erabaki da.

1.8) B.A.L.k, A.rteaga auzunea 6ko Jabekideen izenean, Arteaga auzunea 6 eraikinaren fatxada eraberritzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.9) J.M.L.P.k, J.R.E.I.en izenean, Idiazpi auzunea 3 4A etxebizitza erreformatzeko proiektu bisatua aurkezten du eta obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.10) A.U. eta R.C. enpresek osatutako Zestoa Kiroldegia ABEEri jarritako abalاک itzultzeko eskatzen dute.

Obran zehar jarritako abalak itzuliko dira.

1.11) J.H.k eta A.R.k, beraien etxebizitza inguruko ur tuboak eta alkantarilak errebisatzea eskatzen dute.

Eremu hori pribatua den heinean, bertako azpiegiturak ere pribatuak dira; hau da, ez da udal kompetentzia, jabego pribatua delako.

1.12) I.A.L.k, Z.Z.O.k, Y.I.E.k eta L.Z.O.k, Telleri Berri etxea berreraikitzen ari direnak, Udalarekin zenbait gai lotzeko eskaera egiten dute.

Udala prest dago interesatuekin bilera egiteko.

1.13) J.B.A.k, borda bat eraberritzeko kontsulta egiten du.

Borda eraberritzea baimengarria da, bordaren neurriak 30 m²koa beharko luke, inoiz ez handiagoa.

1.14) J.L.E.A. jaunak, Arroa Beheko Artzubia aldea ibardiaren berreskurapen eta hobetze lanen inguruko kamioi erregistroa aurkezten du, 2020ko urriko hilabetari dagokiona. Ontzat ematen da.

1.15) I.U.U.k, Uztapide plaza 1eko Jabekideen izenean, Uztapide plaza 1eko igogailua 0 kotara jaisteko exekuzio proiektua aurkezten du. Ontzat ematen da aurkeztutako exekuzio proiektua.

1.16) A.H.eko arduradunek, bilera bat eskatu dute. Ontzat ematen da bilera egitea.

1.17) Udaletxe azpian baloiarekin ibiltzea debekatzen duen kartela.

Kartel pedagogiko bat jartzea adostu da, ume handiak ibiltzen direnean suposatzen duen arriskuagatik.

1.18) Lau-Iturritik Bainuetxerako bidearen egoera. Jende asko ibiltzen da eta bertan zuloak daudela adierazi da. Kartel bat jartzea egoki ikusi da, jendea ibai ondoko bidetik bideratzeko.

2.- PERTSONALEKO GAIAK.

2.1) Udal eraikinetako garbitzaileen lan-poltsa: Lanbideren bitartez eskaintza bat egin zen lan-poltsa bat osatzeko. Urriaren 28tik azaroaren 6a bitartean izena emateko epea ireki zen. Epe horretan 59 pertsonak eman dute izena. Eskaintza egin zenean, garbitasunean esperientzia izatea eta euskarako B1 mailako titulua izatea baloratuko zirela zehaztu zen.

Ontzat ematen da lan-poltsa eta beharrak direnean, hurrenkeraren arabera deituko zaie hautagaiei.

3.- BATZORDE INFORMATIBOETAKO AKTAK

- 2020ko ekainaren 11ean Kultura Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko urriaren 22an Kultura Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko urriaren 1ean Ingurumena eta Landa Garapena Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.

4.- ALKATEAREN EBAZPENAK

- 324 zk: I.E.Z. anderea Zestoako Udaletxeko aparejadore zerbitzua denboraldi batez ematea kontratu txiki bitartez.
- 325 zk: Zestoako Udalak Ertxiña musika eskolari hitzarmen bidez egiten dion zuzeneko ordainketaren zati bat ordaintzeko agindua.
- 326 zk: Dirubiltzaileak proposatutako itzulketak egitea.
- 327 zk: J.U.M.ek aurkeztutako erreklamazioa baiestea.
- 328 zk: M.K.I. kontratazioa E.K. udaltzaina ordezkatzeko.
- 329 zk: 2020ko hirugarrenengo hiruhilabeteko Ur eta Zabor Tasaren erroldak onartu eta ordaintzeko epea ezartzea .
- 330 zk: I.U. udaltzainaren eszedentziaren ordezkapena egiteko izendapena.
- 331 zk: Martxoan Aizarnako elkartean lapurreta gertatu ondoren, M.ek Udalarari ordaindutakoa elkarteari itzultzea.
- 332 zk: Artigain etxeko obretako hondakinen kudeaketagatik jarritako abalaren itzulketa.

5.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK.

Ez dago elkarrerantzun ofizialik.

6.- ERREGU ETA GALDERAK.

Ez dago erregu edo galderarik.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa eguerdiko 14:45ak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue

Idazkaria,

O.e